


TALDE LANA.

Liburu atala edo artikulu baten aurkezpena.



Aipamen orokorrak

- Talde bakoitzak **50 minutu** izango ditu, hau da, klase praktiko osoaren iraupena, bere lana burutzeko
- Aurkezpena **lantaldeak** egingo du. Lantalde bat eratzeak norbanakoen partetik inplikazio maila handia eta berauen arteko koordinazioa trinkoa sustatzea dakar. Horretarako, lantaldeek beharrezkoak dituzten bilera guztiak egitera konprometitzen dira.
- **Azken nota lantaldearena** izango da, hura osatzen duten persona bakoitzak egindako lana edo erakutsitako inplikazio maila kontutan izan gabe.

1. Edukien aurkezpena

Irakurgaiaren edukiak modu argi eta ulergarri batean transmititu behar dira. Ariketaren xedea ez da apunte batzuk klase aurrean irakurtzea baizik eta ikaskideak eduki horiek ezagutzera eta konprenitzera eramatea. Hau da, **zuek eskola bat ematea**.

Edukien aurkezpen egokia egiteko lehenik eta behin testua bera ondo landu beharko da, banaka eta taldeka. Honetarako “testu antropologikoa lantzeko gida” jasotako urratsak eta prozedurak kontutan izatea aholkatzen da.

Testuaren edukiaz gain gaiaren inguruko analisi kritikoa egitea baloratuko da ere.

2. Talde dinamika

Irakurgaiaren gaia edo tesia hobeto ulertzeko edo barneratzeko, horrekin loturiko teknikaren bat prestatuko dugu; klase praktiko bat, alegia. Dinamika egokian pentsatzea eta hura ondo prestatzea testua lantzea bezain garrantzitsua izango da. Zenbait aholku dira gaia ondo

menperatzea, klase osorako dugun denbora ondo neurtzea, lantaldean koordinazioa landu, dinamika errealistetan pentsatzea, jendea dibertitzea ikasten duen bitartean, e.a.

Gaiak eta aurkezpen datak:

- 2. kapitulua “Generoa eta adina: Gizartea mailakatzeko bi eredu”: **Urriaren 28an**
- 1.go kapitulua “Etxeko bizimoduaren antolamendua eta ahaidetasun harremanak” **Azaroaren 4an**
- 7. Kapitulua. “Erlijioa”. **Azaroaren 11an**
- “Ama behia”. **Azaroaren 18an**
- “Potlatxa”. **Azaroaren 25ean**
- “Lehenengo euskal emigrazioa”. **Abenduaren 2an**
- “Euskal jaiak”. **Abenduaren 9an.**

Irakasleari ENTREGATU beharrekoak

Aurkezpen egunean talde bakoitzak irakasleari BILEREN AKTAK entregatu beharko dizkio orden kronologikoan ordenatuak.